

Sant'ikaueetan euskaraz Txikurixan

drogetenitturri

Ermua eta Mallabiko aldizkaria 170. alea 2009ko uztaila



UGARRO
AHOLKULARITZA FISKALA,
JURIDIKOA
ETA KONTABILITATEKOA



Mutua General de Seguros

Fernando Orbe. ekonomista
Juan Jose Gorritxategi. abokatua

Zubiaurre, 27
177 postakutxa

ugaro@ugaro.com · forbe@ugaro.com

943 17 43 44

Faxa. 943 17 54 58



**EIBARKO
HIZKUNTZA
ESKOLA
OFIZIALA**

EUSKO JAURLARITZA



**Eibarko HEOK matrikula
ofiziala uztailak 7-24 eta
irailak 1-7 artean izango
dela adierazten du**

- Maila Probak Eskolako web orrian egin ditzakete ikasle berriek

Informazio gehiago:
943 20 06 18 telefonoan
eoieibar@euskalnet.net
www.eoieibarheo.net

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa Elkarte Kulturala
www.euskalbirusa.org

HELBIDEA:

Erdikokale 2, 1.
943 17 93 50.
drogeten@gmail.com

ERREDAKZIO TALDEA:

Estibalitz González,
Asier Ibaibarriaga,
Alazne Aiestaran,
Eneritz Aranburu, Olatz Gil
eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA**ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Ignacio Urreta.

LAGUNTZAILEAK:

Piedi Eizagirre, Igone
Amesti, Patxi Lopez, Tere
Lartitegi, Idoia Carracedo,
Riki González, Iñaki Pereda,
Marijo Cañoto eta Fede
Iturriagagoitia.

ARGAZKIAK:

Alazne Aiestaran, Olatz Gil,
Dorleta Vidal, Estibalitz
González, Asier Ibaibarriaga,
Bizkaia! eta 'Aves de España'
(Reader's Digest) liburua.

PUBLIZITATEA:

688632876

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Aritz eta Ekaitz Muñoz
eta Irune Martínez.

TIRADA:

2.200 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/94.

*Drogeteniturrrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko hegaztiak

...Fede Iturriagagoitiak batuta

Lumaz nabar kolorekoa bada ere, paparra eta sabel alde zuriak ditu, orban marroi batzuekin. Zizare eta barraskilo jalea da; hauei oskola trebetasun itzelakin hausten die: harri baten gainera botaz eta beti harri bera erabiliz. Harlozaren baten gainean karakol-oskol piloa topatu ezker, birigarroren batek jatordua bertan prestatu duen seinale. Zoragarria da bere kantua; txistulari bati entzunda diot esaten birigarroak jotzen dituela eskalako notarik altuenak zein baxue-nak. Kantu hori ez da batere motela ezta monotonoa; entzutekoa berran, ño! Badaude pasean datozen birigarroak, baina berto-bertokoak ere; bizi guztiko txoria da gure artean, nahiz eta herritik hurrun xamar ibili beti.

Birigarroa *Malviz o zorzal común* *Turdus Philomelos*



Hilabete honetan...

TALDE-TXOKO4 Tratu onen aldeko plataforma	KIROLZALE21 Pedro Horrillo
ELKARRIZKETA5-7 Estiitu Azpiazu	BOTEPRONTOA22 Nor da Irene Iriondo?
MALLABIAN ZER?8-9 Andra Mari jaiak 2009	SALEROSKETAK23 Saldu, erosi edo agurtu
ERREPORTAJEA10-11 Done Jakue bidea Ermutik (I)	IRITZIA24 Hurrengo eguneko pilula
MOTZEAN.....12-17 Jon Idigoras / Igerilekuko obrak	KALEKO INKESTA25 Ermuko eta Mallabiko jendearen iritziak
ERMUAN ZER?18-19 Euskal Birusaren txikurixa	AGENDA26 Abuztuko agenda
ERMUAN ZER?20 Ermuko eskumuturrekoa	

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Tratu onen aldeko plataforma

Elkarte honek 3 urte beteko ditu aurten. Hainbat taldez osatuta dago eta euren helburua, emakumeengana indarkeriaren aurrean errefusa erakustea da, besteak beste. Urtero bezala, kanpaina berezia prestatu dute aurtengo jaietarako, batez ere, eraso sexisten aurka egiteko.

- Zein urtetan sortu zen taldea?

Plataforma 2006 urteko azaroan sortu zen Ermuko emakume baten heriotzaren ondoren. Kasu horrek Ermuko herritarren erreakzioa probokatu zuen, emakumeen indarkeriaren aurkako manifestazio batean parte hartuz. Ermuko Berdintasun sailetik, herriko elkarte, zerbitzu eta agente sozialei deia egin zitzaizen plataforma hau sortzeko.

- Zenbat kide zarete?

Hasieran 24 bat taldek osatzen genuen plataforma, horietatik 5 hezkuntza esparrukoak, 14 esparru sozial eta kulturalekoak eta 5 berdintasun esparrukoak ziren. Ondoren beste talde batzuk (sindikatuak...) egin ziren taldeko kide eta denborarekin beste batzuk arrazoi ezberdinak tarteko, plataforma utzi dute.

- Zeintzuk dira zuen helburuak?

Plataformak helburu desberdinak ditu; emakumeenganako indarkeriaren aurrean errefusa erakustea, esparru guztietan: koadrilan, lanean, eskolatan... Halaber konpromiso pertsonal eta kolektiboa; emakumeen aurkako indarkeriari kontra eginez. Baita ere arazo honen aurrean kolektibo eta erakunde ezberdinekin koordinatzea esfortzuak gehituz. Sentsibilizazioa eta denuntzia soziala; ekintza ezberdinak bultzatuz herritarren eta erakunde ezberdinen kontzientzia eta konpromisoa lortzeko, besteak beste.

- Zein maiztasunarekin biltzen zarete eta non?

Hilabetean behin biltzen gara Emakumeen Topalekuan, normalean ostegun arratsaldetan 18:30etatik aurrera.

- Urtean zeintzuk ekitaldi egiten dituzue?

Urtero-urtero plataformako kideok Santixauetako jaietarako kanpaina bat prestatzen dugu, jaietan emakumeen erabateko partaidetza susperitzeko eta batez ere eraso sexisten kontra egiteko. Helburu horrekin pegatinak, "Santixauetan emakumeak edonon" lemarekin, zapiak "Jai larai emakumeak ere lasai" lemarekin eta pasa den urtean eskumuturrekoak 'Enchúfate al buen rollo' lemarekin atera genituen. Aurten txapa batzuk egin ditugu, 'Jaietan ere tratu onen alde' lemarekin eta uztailearen 24an



banatuko dira arratsaldeko 18:30etan Patxi plazan. Urtean zehar Emakumeen Udal Kontseiluarekin koordinatzen gara, bereziki azaroaren 25ean egiten diren ekitaldietarako.

- Nori zuzendua dago Plataforma?

Plataforma espazio zabala da, hainbat eta jarduera eremu bezala erabiltzen dugu, beraz zabalik dago bai talde, elkarte, kolektibo, zein gizon edo emakumei... Hemendik interesa duen pertsona oro plataforman parte hartzera animatu nahi dugu.

- Zuekin harremanetan jartzeko?

Emakumeen Topalekura joanda, Izelaieta kaleko 12ra edota 943171030 telefono zenbakira deituz.

Olatz Gil

SAN ANTONIO

OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaieta, 40
Zubiaurre, 12

Tel. 17 00 63
Tel. 17 38 40

AIZ

Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)


OINAK

LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
☎ 943 17 47 44

**SANATANA DHARMA
YOGA ELKARTEA**

San Roke, 24-behea
Informazioa: 943 74 85 93 edo
685 72 21 31 (Idoia)



Estitxu Azpiazu:

**“Ez dut neure burua etorkin
bezala ikusten, egoera
pribilegiatuan bizi gara”**

Azken urteak Eibarren pasa baditu ere, urte askoan Ermuan ezagutu dugu Estitxu Azpiazu. Orain Txinan bizi da. Lau urterako hara joan da, baina duela gutxi Euskal Herrira bueltatu zen 15 egunez eta berarekin berba egiteko aukera izan genuen.

- Nolatan Txinan?

Bai niri eta nire bikoteki-deari ere betidanik gustatu izan zaigu leku berriak eza-gutzea. Udako bidaiak motzak geratzen zitzaizkigunez, noizbait nonbaitera bizitzera joango ginela erabakita genuen. Lanean horretarako prest geundela esan zuen berak eta urte batzuen ostean Txinara bidali gintuzten.

- Ze hiritan bizi zara?

Aurten Tedan bizi naiz, Tanggurekin batera Tianjin hiri handiaren zati da. Tianjinek guztira 12 milioi biztanle ditu eta Tedak eta Tangguk, elkarrekin, milioi t'erdi daukate gutxi gora behera. Ipar-ekialdeko kostaldean dago, Beijing-etik 120 kilometrora, eta industriara bideratutako hiria da.

- Zenbat denbora daramazu bertan?

Dagoeneko urte t'erdi pasatxo daramagu Txinan eta momentuz gure asmoa 2011ko urrira arte gelditzea da, proiektua 4 urtekoa da eta.

- Nolakoak dira txinatarrak?

Ez da galdera erraza... Nolakoa? Milioika modutakoak, noski, gu bezala. Gauza askotan gure modukoak dira eta

beste askotan horren ezberdina, guretako ulertezinak bilakatu daitezkeela! Orokorrean jende ona da, lasaia eta harmoniaz betetakoa, nahiz eta batzuetan oso iskanbilatsuak iruditu zaizkidan (segur aski beti tropelean mugitzen direlako da, je, je!).

- Hemen lan asko egiten dutela ikusten dugu. Han?

Nire bikotekideak denetik aurkitu daitekeela esaten du, hemen bezala, baina euren buruz dugun ideia ez da guztiz zuzena. Bakar batek agian ez du lan asko egiten, baina hainbeste direnez, lan handia egiteko gai dira. Ez zaie batere inporta lantokian 12 edo 13 ordu ematea, ez dute etxera itzultzeko presarik. Askotan, ahal izanez gero, ezkutatu egiten dira lo kuluxka bat egiteko (batzuetan ez dira ezkututzen) eta lanera heldu eta ordu bat pasata, lasai eser daitezke lurrean, taldeka, zigarro batzuk erretzeko, "kantsatuta daudela" esanez.

- Hara iristean, zerk harritu zintuen?

Batez ere, horrenbeste jende elkarrekin ikusteak, etengabe eta leku guztietan. Horrenbeste kotxe, kamioi, karro, furgoneta, bizikleta,

"Gutxirekin konformatzeko duten gaitasuna ikasi beharko genuke"

motor... denak batera eta orroka kale zabal horietan, dena betez. Kaos izugarria dago beti eta hala ere ez dirudi beraiei inporta zaienik. Hau ere Indian topa daiteke, baina ez dut uste sentsazio berdina denik; honek, lehenengo begirada batean, mendealdearen antz handia duelako: eraikin modernoak, kotxe garestiak, azken 'modako' semaforoak eta guzti! Agian hor dago kontraesana, itxuraz gure eszenatokiaren hain antzekoa izanik, aktore eta antzezlanaren horren ezberdina izatea.

- Zertara ez zara oraindik ohitu?

Batez ere kutsadurara. Horrenbestekoa da, horren argi suma daiteke eta horren azkar sentitzen da bere eragina (ahoa, begietan, eztarrian, biriketetan...), egunero-egunero kalera irteten naizen bakoitzean, mehatxua bezala sentitzen dudala. Ez naiz inoiz guztiz eroso sentitu hemen arnasten dugun airearen erruagatik.

- Ogia erostera zoaz. Zelan ematen duzu aditzera, keinuekin?

Bai, zerbait eskatu behar dudanean, askotan keinuekin adierazi behar dut, baina ez da batere erraza izaten. Alde batetik, keinuak deszifratzeko ez dutelako irudimenik iruditzen zaidalako. Bestalde, euren ere badituzte keinu gutxi batzuk eta batzuetan gure keinuekin nahasten dira. Guretzat diruaren keinuea dena, beraientzako adinarena da, esaterako.

- Eurentzat gu ere harrigarriak izan behar...

Bai noski, baina lekuaren arabera da. Atzerritarrak ikusten ekialdean daude ohi-tuen, hala ere ez da berdina

Shanghai (bertan askoz ere ohituagoak daude) edo Beijing edo Tianjin. Tianjinen askotan zoo batean bezala sentitzen gara, batzuetan inguru guztia dugulako guri begira. Umearekin goazenean, nekagarria da, edozer suerta daiteke: argazkiak atera, dendetan gelditu umea ikusteko, ukitu nahi dute, berari buruz dena jakin... Parkera bagoaz ere, bi minututan gizon eta emakume talde izugarria biltzen da gure inguruan eta guri buruz hitz egiten dute, atzamarrarekin seinalatuz. Askotan beraien-tzako barregarriak gara, ezin dute sinestu nola eraman dezakegun ume txiki bat halako karrotxo moderno eta potente batean, sarritan beraien ibilgailua baino hobea dena! "Zer nolako maharajá egongo da hor barruan, bada?" pentsatzen dutela dirudi. Ez zaie arrazoirik faltako...

- Isolamendu puntu bat bizi duzu, zelan egiten zaio aurre?

Ez da batere erraza, egia esanda. Alde batetik, atzerritarrei hemen gertatzen zaiena gertatzen zaigu Txinan. Ez dugu beraiekin egoteko ohiturarik hartzen, ezberdintasun kulturalengatik nik uste. Gauza bera gertatzen da hona etorritako atzerritarren artean, arrazoi guztiz praktikoengatik: bertara joan den gehiengo lanean ari da eta lanik ez baduzu egiten, ordu gehienak bakarrik pasatzen dituzu, bizitza soziala asteburueta mugatuz. Nola egin aurre honi? Ba, ahal den moduan: pixka bat ikasi, eguneroko erosketei eta eginbeharrei denbora dezentente eskaini, lo ahal den neurrian, inguruko hiriak bisitatu, paseatu eta, noski, zu



Estixu eta Luar, 'Hiri Debekatuan', atzean Mao-ren irudia dutela.

bezalako atzerritar bat libre badago (eta gustuko baduzu!) berarekin egoteko aukerarik ez galdu.

- Zure bikotekidea edo zu, zein moldatu da hobeto?

Dudarik gabe, nire bikotekidea. Berak lantegian ordu asko ematen du, ez da sekula santan aspertzen eta gainera asko ikasten ari da, hizkuntza aldetik eta txinatarrekin tratua izatearen aldetik.

- Aurrean duzun kartelak zer ipintzen duen ez dakizunean, zer dator burura? Ikasteko gogoa piztu edo kontrako bidea hartzen da?

Hau bakoitzaren izaeraren arabera da. Niri, adibidez, karaktereek kuriositate izugarria sortzen didate eta ikasteko gogoa izaten dut. Baina ezin denez idatzizko hizkuntza ikasi ahozko hizkuntza ere ikasi gabe, mugaturik aurkitzen naiz, ez zaidalako oso erakargarria egiten ahozko txinatarra, egia esanda. Ordu asko eta asko pasa behar dira egunean praktikatzeko (eta oroimena lantzen), oso ahoskera zaila du. Askotan hiri bereko bi txinatarrek ere ez dute elkar ondo ulertzen eta azkenean eskuan atzamarrak karakterea idaztera jotzen dute hitz bat tratatzen zaienean.

- Guretzat Txina, bere kultura, ohitura eta biztanleria ezezagun handiak dira.



Hector eta Luar, Beijing-eko parke baten sarreran, jendea umeari begira dutela.

Zergatik zure ustez?

Ez dakit. Hemen ez dugu Txinari edo txinatarrei buruz ezertxo ere ikasi. Eurek, berriz, gauza asko ikasten dute eskolan mendebaldeari buruz. Hala ere, niri betidanik iruditu izan zait badagoela mendebaldean txinatarreko aurreiritzi ugari eta orain arte telebistan adibidez, parodiatu egin izan dira, arraro hitz egiten dutela eta pixka inuzenteak direla islatuz. Orain, berriz, barregarriak iruditu beharrean, beldurgarriak iruditzen zaizkigu, noizbait "inbaditu" edo egingo diguten ideia horrekin...

- Etorkin izateak zer suposatzen du?

Egia esanda, ez dut neure burua etorkin bezala ikusten, hiztegian emandako adieran sartu naitekeen arren. Are gutxiago 'expatriatu', atzerritar asko euren buruei buruz esaten duten bezala. Gu egoera pribilegiatu batean bizi gara; atzerrira joan gara horretarako aukera erosoak izan ditugulako, diruarekin eta diru gehiago egitera! Nahi dugun lodierako kristala aukeratu dezakegu bizitzeko erabiliko dugun gure ponpatxoa eraikitzeko; benetako etorkinen estuasunak ez ditugu usaindu ere egiten.

- Zein janari botatzen da faltan? Zein ikasi duzu prestatzen?

'Pintxoteoa' botatzen da gehien faltan, jeje! Eta arraina! Gure hiria kostaldetan egon arren, ez dago baterre arrain goxorik. Bestalde, ez dut plater berezirik prestatzen ikasi, baina barazkiak eurek bezala prestatzen saia-

tzen naiz; oso garbi egiten dute eta zapore handiarekin aldi berean.

- Zer da eurengandik ikasi beharko genukeena?

Gauza asko, duda barik. Lehengoa, gutxirekin konformatzeko duten gaitasuna (herri moduan anbizioa azaltzen badute ere). Horrek, askotan, alde negatiboa du: aberastasuna banatzen dutenak, konformatzeko erraztasun horretaz aprobetxatzen dira. Bigarrena, bakean eta harmonian egoteko egiten duten ahalegin konstantea. Hirugarrena, bizitza pasatzen lasai asko ikusteko ere oso trebeak direla (kubatarren gainean askotan entzun izan dugun moduan). Eta bururatsen zaidan laugarren bat: beraiantzat probetxugarria dena bereganatzeko ez dutela lotsarik, adibidez, kopiak egiteko, patenteak eta abarrok mespretxatuz, jaja!

Estibalitz Gonzalez

"Nekagarria da umearekin joatea; jendeak argazkiak atera nahi dizkio, ikutu..."

Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



Andra Mari jaiak 2009

ABUZTUAK 14, ostirala

UMEEN eguna

12:00-14:00 / 16:00-18:00: Umeen-tzat parke berezia: puzgarriak, txalupak, quads, jumping... parkean.

18:00: Bits festa parkean.

19:00: Txupinazoa (A.D. Mallabia F.T. ko kide batek botako du) ondoren; Euskal Preso eta Iheslarien aldeko brindisa eta enkartelada.

19:30: Txokolatada plazan.

22:15: Pilota partiduak Mallabia I Kirol Etxean: Berasaluze IX - Cecilio / Olazabal - Urberuaga eta Xala - Zubietta / Martinez de Irujo - Beroiz.

Mallabitarrentzat sarrerak abuztuaren 3tik 10ra bitartean egongo dira salgai Udaletxean. 15€ Mallabiko langabetu, ikasle eta jubilatuentzat bere egoeraren justifikazio txartela erakutsiz. Gainontzekoak 20€tan. Pertsona bakoitzari bina sarrera emango zaizkio gehienez. Takila 21:30etik aurrera zabalduko da eta hemen sarrerak denentzat 25€koak izango dira.

00:00: Bide Batez taldearekin erromeria plazan.

ABUZTUAK 15, larunbata

ANDRA MARI eguna

11:00: Meza Nagusia.

12:00: Trikitilariak, bertsolariak eta jarraian Euskal Herri Kirolen erakustaldia Mallabia I Kirol Etxean. Aizkoran: Jabi, Bixente, Zelai II eta Onandi. Biurrik egur handi bat moztuko du.

Gaztetxoeren herri kirolak:

A Taldea: Aizkoran, Zelai III; Harri-jasotzen, Onintz eta Txokor batzen, Gartxot.

B Taldea: Aizkoran, Zelai IV; Harri-jasotzen, Elordi eta Txokor batzen, Goiketxe.

17:30: Mallabiko XIX. Harri-jasotze saria Harri Txikia, Mallabia I Kirol Etxea. 100 kg-ko zilindro zaharra eta 100 kg-ko bola. Harri-jasotzaileak: Izeta II (Gipuzkoa), Izeta III (Gipuz-



koa), Izeta IV (Gipuzkoa), Belioso (Bizkaia), Goiketxe (Gipuzkoa), Urrutia (Nafarroa) eta Igoa (Nafarroa)

SARIAK: 1. 800€, garaikurra eta txapela; 650€ eta garaikurra; 500€ eta garaikurra eta 400€. Gainerako parte-hartzaileei 250€ko dieta emango zaie. Dagoen marka tapatzen duenari sari berezia emango zaio 180€.

17:30: Tute, mus, briska eta asto txapelketa tabernetan.

22:00: Irrintzi taldearekin Bilbainadak parkean.

23:30: Suak (bouqueta). Ondoren Erlaxi taldearekin erromeria plazan.

ABUZTUAK 16, igandea

SAN ROKE eguna

11:00: Meza Nagusia.

11:00: X. paella lehiaketa.

17:00: Herri jolasak plazan eta partidu sorpresa Mallabia I Kirol Etxean.

20:00-01:00: Mallabitar guztientzat txerri errea eta sagardotegi ibiltaria plazan (sagardoa eta erromeria). Oha-

rra: Txerria jateko, 3 pintxo euro bat izango da eta sagardoa doan.

13:30etan aurkezpena egingo da epaimahaiaren aurrean eta jarraian sari banaketa izango da.

ABUZTUAK 17, astelehena

NAGUSIEN eguna

11:00: Meza Nagusia.

12:00: Zabale, Larrañaga eta Etxebarria bertsolari-trikitilarien saioa plazan.

13:30: Jubilatuen bazkaria Probalekuan. Bazkal ostean trikitilariak egongo dira.

17:45: Open Pelota partiduak. Arrese - Olalde / Aurtenetxe - Perosanz eta Beitia - Aldape / Azpiri - Landaburu.

ABUZTUAK 20, 21, 22, 23 eta 24

Mallabia I Kirol Etxean, XXII. Idi proba txapelketa. Sariak: 1.600 eurotik, 520 eurora. Nahiz eta sarietara ez heldu, 30 unteko marka gainditzen duen idi pareak, 350euroko saria izango du.



FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

943172665 ERMUA

B A G R S Zubiaurre 20

*Pintxoak, otartekoak...
 eta hostalarien umore ona*

JON EGURROLA ETA HABAT AREITIOAURTEMA LEKEITTIOKO HUII, TRIATLOIEM



Pasa dan ekainaren 20xen Lekeittioko 17. triatloie ospatu zan Garraitz Kirol Taldiek eta Euskadiko Triatloi Federazinuek antolatute. Guztire 453 parte hartzaile batu ziren, euskal herritar eta kanpotarren artien, australiarrak esaterako; Jon Egurrola eta Xabat Areitioaurtema mallabittarrak bertan izan ziren. Uste baino hobeto egin ebien probie, "aurretik sekule be ez gara honako proba baten

ibili eta triatloi bat zelakue dan barrutik ikustie nahi gendun, aprobie eittearren apuntau ginen" eta baitte postu onak lortu be. Xabaten esanetan "ixe entrenau be ein barik apuntau ginen, lehenengo 300en artien sartzen baginen, gu pozik eta konforme", Xabat 216.a izan zan 1:18:26ko denporie egindde eta Jon 233.a 1:19:30eko markiaz. Lehenengo probie eta berau gogorrena, 750 metro itsasuen igeri eittie izen zan Isuntzako hondartzan. Ondoren zapatilak jantzi eta bizikleta gainera. 22 kilometroko jun-etorrixe egin eben parte hartzailiek, hasi Lekeittio erdigunetik, Oletatik ziherr Milloi igo %4ko aldapiaz, Plazakolan ure eran eta %5eko gora-beheriaz Lekeittiora bueltatzie. Eta azkenengo saiuen ariñeketan egin eben. Portutik ekin eutsien aringaringe eta 5 kilometroko jun-etorrixe, Santa Katalinako ermittaraino, farue daguen lekuraino bete biher izen ebien parte hartzailiek.

MALLABIKO UII TENIS TXAPELHETA

Iker Araiztegi ermuarrak lortu dau aurtengo Tenis Txapelketako txapela Erik Castro mallabittarrari 6-2 eta 6-3 irabazitte finalien. Guztire 16 jokalarik hartu dabe parte, horretatik Mikel Azaldegi eta Sergio Gil semifinaletan geldittu ziren.

INDALEZIO OJANGURENEN MALLABIKO ARGAZKIHEN IKUSGAI HERRIKO TABERNAN

Eibartar erretratista ezagunek Mallabin ataratako argazkikiek ikusgai ipini dittue Izar Gorri elkartiaren tabernan. Aspaldiko Mallabi ikusi leike argazkixetan: bertako baserrittarrak etxaurrietan, goldaketa lanetan idi pariakin, soluen biherrien, baserri eta ermittak, gure herrixe zelakue zan erakusten deuskue. Interneten dagoz ikusgai argazkixok www.guregipuzkoa.net web orrixen.

MALLABIKO GAZTIEN HINIELIE

Abuztuko Andra Mari jaixetarako kiniela berezi bat antolatu da Izar Gorri elkartien. Umetako eta gaztetako argazkikiek batu nahi dabiez bertan gero izenik ipini barik argazkiko 0 eta 15 urte bittarteko hori nor dan asmatzeko. Danak asmatzen dittunek sari eder bat jasoko dau. Uztailaren 15ien izen da argazkikiek entregatzeko azkeneko egune. Parte hartzie nahi dabenak, bertatik pasatu besterik ez dauke eta ia asmatzen daben ni nor nazen...!

BAKE EPAILE BARRIHE

Arrate Arrieta izango da aurtengo uztaitetik aurrera Mallabiko bake epaile barrixe. Euskadiko Autonomi Erkidegoko auzitegi nagusixaren aginduz Mallabiko bake epaitegiko epailie eta ordezkue izendatzeko prozesue zabaldu eban udalak pasa dan ekainien. Aurkeztuteko hautagaixen artien udaleko ordezkariyek aukeratu dabiez epailie eta ordezkariye. Orain arte epaile izan dan Mari Asun Garitagoitiak eta ordezkari izan dan Arrate Arrietaren artien zozketa egin eben, puntuazio bardine eukielako.

Eneritz Aranburu

MUGA **KIROLK**

San Pelaio 4A behea
Telefonoa: 17 64 77
ERMUA

AKADEMIA
ERMUA INFORMATIKA

TRESNERIA ETA OSAGAI
INFORMATIKOEN SALMENTA

Goienkale kalea z/g
Telefonoa (943) 17 90 38

IZOTZ
KONJELATUAUAK

Ermuko Merkatua.
54 eta 55 postuak
943 17 41 01
Arrasateko Merkatua
943 77 05 98

san pelayo
clínica dental hartz klinika

San Pelayo 5, 1ª
Ermua (Bizkaia)

Olatz Garcia Arregui

943 17 04 04

ELUR
ESTETIKA-EDERGINTZA

- Depilazioa
- Elektrologia
- Gorputz eta Aurpegirako tratamenduak
- Masajeak
- Pedikura
- Manikura (parafinarekin)
- Solariuma
- Laser depilazioan espezializatuak
- Kontsulta mediko-estetikoa

Aldapa 1 **943 17 60 52**

URRETA burdindenda

- × *Etrea*
- × *Tresneria*
- × *Brikolaita*
- × *Rielak*
- × *Giltzak*
- × *Zerrailgintza*
- × *Kit altzariak*

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

Done Jakue Bidea Ermutik (I)

Done Jakueko Bidea. ERMUtik igarotzen ote zen? Ez? Eztabaidatua izan da gaia. X-XI mendeetako gauza baten gainean ari gara berbetan eta garaiko idatzizkorik ez egotean, lagatako lorratzak interpretatu beharretan topatu dira historiagileak. Hemen bilduta banaka batzuk.

“Santiago Apostolua-ren hilobira erromesaldia egiteko, Erdi Aroan sortu zen bideari deritzo Santiagoko edo Done Jakue Bidea. 813. urtean ermitari batek erromatarren sasoiko hilobi bat aurkitu zuen Galizian. Handik aurrera hasi zen erromesbidea ezagutzen eta XI. menderako oso arrakastatsua zen. Arrakasta honen arrazoiak garai hartako interes erlijioso-politikoetan aurkitu behar dira”.

Sarrera historiko honekin ematen diote hasiera Koldo Aranberria ermuarrak eta beste 4 irakaslek 2005ean “Done Jakue Bidea Bizkaian eta bere ondare artistikoa” izenburupean burututako lanari. Aurrekoaren hariari jarraituz, esan behar da Iberiar penintsula musulmanen menpe zegoela, eta Europatik zetozten erromes ugariak Kostako Bidea erabiltzeari ekin ziotela (arruntagoa den Bide Frantsesa arabiarrek alde eta


gero berreskuratuko zen).

Kostako Bidea

Frantzia atzean lagata, Iru-dik sartzen zen bide hau eta Gipuzkoa zeharkatzen zuen itsasertzari jarraituz. Debara iristean bidaiariak aukera ezberdinak zituen eta halaxe azaltzen digu Jose Luis Orellak Interneten ikusgai dagoen “Konpostelara bideak Euskal Herrian barrena” bere lanean: “Gipuzkoako bidea, Mendaro pasa ondoren, Bizkaian bi tokitatik sar zitezkeen: Markina-Xemein edo ERMUtik, biak Bilbon bateratzeko”.

Juan San Martin eibartarrak 1969an eta “En torno a los testimonios del arte románico en Eibar con algunas consideraciones sobre el Camino de Santiago” izenburuarekin idatzitako separatan, Ermurantz abiatzen denean zera aipatzen du:

“Ego ibaiaren ubidean gora, Sallabentean bitan banatuko zen: bide batek Ermutik jarraituko zuen Areitioko S.



Done Jakue Erromesbidearen Bizkaia sartzeko sarbideen mapa.

Torkazera igo eta gainez-gain Sta. Mañazarren Jainagaitik, Zaldibarrera jaisteko; beste bideak, oraindik galtzadakin, Sallabentetik Eitzagako S. Pedrorra eta gora eginez Sta. Mañazarrera joko zuen”.

Aita Teodoro Martinezek 1976an argitaratutako “Caminos de Santiago en Bizkaia” liburuan ondokoa irakurtzen dugu:

“ERMUko bidea. Gipuzkoatik ERMUA zeharkatuz sartzen zen Bizkaian, ondoen harresitutako lekuetako bat Jaurerrian, gaur aztarnarik izan ez arren. Bere elizan, erromesak Santiago Mairuhiltzailea agurtu zezaketen,

erretaula barroko ikusgarri baten urrezko fondoaren gainean nabarmentzen dena”.

Juan Antonio Pinedok, “Bizkaiko Herrien Monografiak: Ermua, Mallabia, Zaldibar” liburuan 1996an idazten zuen:

“Barrio Lozak eta Azkaratek`La Arquitectura Románica Vizcaína`n 1982an egindako ikerketek bagatzakoz, biek diote Donejakue bideko adar batek Bizkaia barrualdetik zeharkatu ebal, eta beste adar bat koztaz-kosta joaiala. Barrualdekoa, Gipuzkoatik etorrera berau, ERMUra joaz sartzen zan Bizkaian. Bertoko Parrokiaren gurke-



**ERA GUZTIETAKO MUTUA
ETA ASEGURUEKIN
KONTZERTATUA**

ERREHABILITAZIO ETA KONTSULTA ZENTRUA

- FISIOTERAPIA
- 3. ADINEKO MANTENIMENDUA
- ESFORTZU PROBAK
- KONTSULTA ETA ERREKONOSIMENDU MEDIKOAK
- ODOL ATERATZE ZENTROA, EGUN BEREAN ERANTZUNA JASOZ
- MASAJE TERAPEUTIKOA - KIROI MASAJEAK
- URGENTZIAK

Diputazio Etorbidea 8-10 48 260 ERMUA • Tel. 943 17 21 12 - 943 17 21 16
Faxa: 943 17 21 12 • e-maila: indartu@euskalnet.net



Clavijoko batailan irudikatuta, zaldi gaineko Santiago Mairuhiltzailea Parrokiako erretaula barrokoaren erdi-erdian dago kokatua.

tea Donejakue izatea horre-
xen adierazgarria da, eta an-
txinakotasuna aldarrikatzen
deusku”.

Bigarren mailako bidea

Gerediaga Elkarteko Jon Irazabalek gaiaren gaineko bere ikerketak “Por el Duranguesado hacia Santiago” artikuluan laburtu ditu, honako datuak emanez:

“Durangaldeko lurretatik Done Jakue Erromesbidearen bigarren mailako bideak igaro ziren. Durangoko bidea erabiltzen zuten erromesak

ziren Gipuzkoan Irundik sartu eta, lurraldea zeharkatu ondoren, Bizkairantz jarraitzen zutenak edo bidaiaren lehen zatia itsasontziz egin eta, portu gipuzkoarretan lehorreratu ondoren, Bizkaian zehar Bilbora abiatzen zirenak. Horiek Markinatik zein Durangaldetik sartzen ziren Bizkaian, eta Durangaldera ERMUA edo Elorriotik”.

Jon Cano, Txisko Fernández eta Iñaki Arregi historiagile ermuarrak 1988an egin eta argitaratu gabe dagoen Ermuko

historiari buruzko lanean, honakoa dio hitzez hitz:

“Bide hau, Kostakoa bezala ezagutua, itsasbaterretik Gipuzkoan zehar zihoan, eta Debara iristean barruratu egiten zen Ziortzarantz. Hemendik jarraituta Oiz mendigunea inguratuz, Larrabetzura iristen zen. Bestela oinezkoak durangar haranetik abiatzen ziren, ERMUA eta Zaldua igaro ostean. Gure hiria seguruenik atsedeneku zen, bidea merkataritzarako erabiltzen zutenek edo erromesek eurek bete beharreko etapetako baten. Ermuaren heraldikan gordetzen diren Done Jakueren ikur ugartan islatzen da hori. Eliza Santiagoren izenpekoa izateak gure inguruan erromesbideak izan zuen garrantziaz ohartzarazten gaitu”.

Idazlearen edo izenburuaren aipamenik gabe, aspalditik gordeta genituen ondorengo aipuak:

“Kostako Bidea, lehorreko bidea berori (bazeuden eta itsasotik sartzen zirenak, portuetan lehorreratuz), Gipuzkoatik bi tokitik sartuko litzateke Bizkaira adituen us-tetan:

1. Markinako Aspilza auzotik eta hemendik Bolibar, Ziortza, Arbazegi, Gernika, Gerrickaitz, Larrabetzu eta Lezama zeharkatuz Bilboraino.

2. Eibar-ERMUTik eta hemendik Berriz, Durango, Zornotza, Lemoa eta Galdakao igarota Bilboraino.

Ez dago bide horren aztararik, batez ere bidearen us-tezko trazadura ondorengo mendeetan erabili delako; ondorioz, bere balizko trazaduraren presentzia egiaztatu dezakegu bakarrik. Erromesbide horren beste adierazle batzuk gure probintzian, Santiagoren izenpean irauten duten erlijio-tenpluak dira (Bilbo, ERMUA...)”.

Edo ondorengo biak:

“Parrokiak, Apostoluaren izenpean eraikia eta Done Jakue erromesbidearen ibilbideetako baten kokatuta zegoenez, izango zuen gelaren bat erromesei harrera egin, ostatu eman eta haien egonaldia ziurtatzeko”.

“ERMUA Santiagoko Bidearen bigarren mailako eta barrualdeko adar baten dago kokatuta; horren adierazle dira elizaren izena, herriaren armarrria eta oinetxe batzuk dituzten Done Jakueren maskor ezaugarriak”.

Horiek Bidearen gainean eskuratu ahal izan ditugun iritzi batzuk; hurrengo alean izango dituzue herriko eraikinetako armarrrietan diren Done Jakueren ikurren inguruko azalpenak.

Estibalitz González

Pub Dakota



Probaleku, z/g
Ermua (Bizkaia)
dakotaermua@hotmail.com



HORTZklinika
nerea iñiguez

San Ignazio, 4 ERMUA

OSASUNA ETA EDERTASUNA
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA



FISIOTERAPIA

943 17 28 09
Goienkale, 12 - behea

KRABI

Ileapaindegia
Estetika



Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

mari
asun



LORADENDA

Diputación, 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

**H.E.O. REN MATRIKULA
EPEA ZABALIK**

Eibarko Hizkuntza Eskola Ofizialean uztailaren 7tik 24ra eta irailaren 1etik 7ra artean egin ahal izango da matrikula ofiziala. Alemana, euskara, frantsesa eta ingelesa ikasteko aukera dago, astean 4 orduko eskolak jasoz. Eskolak arratsaldez dira eta hainbat hizkuntza eta mailatan; goizeko ordu-tegia ere badago. Urte osoko matrikularen kostua 66 eurokoa da, eta matrikulak, klaseak jasotzeko aukeraz gain, zertifikatu-balioa duten azterketak egiteko urtean bi aukera ematen dizkie ikasleei. Informazio gehiago 943200618 edo www.eoiei-barheo.net helbidean.

**MAPEN MAILEGUA
LIBURUTEGIAN**

Ermuko liburutegiak hiri ezberdinetako mapak, errepide gidak, aldizkariak eta beste hizkuntzatan komunikatu ahal izateko gidak maileguan utziko dizkie bazkideei udan. Bazkideek, urtero bezala, uda pasatutakoan eraman beharko dute bultan hartutako materiala.

**E.M.E. KEN KANPAINA
BERRIA MARTXAN**

Ermuko Merkatari eta Ostalarien Elkartek (EMEK) herriko denda eta tabernetan erosi eta kontsumitzeak dituen onurei buruz sentiberatasun kanpaina berri bat abian jarri du. Kanpainaren leloa ondorengoa da: "Ermuan erosten baduzu, irabazi egingo duzu". Ekimenaren xedea toki-merkataritzaren irudia indartzea da.

Igerilekuko obrak udan

Udal Kirol Erakundeak kiroldegiko igerileku handiaren ontzia moldatuko du udan. Moldaketa horren xedea hirukoitza da: lehenik, estankotasuna bermatzea egun ura galitzen duelako; bigarrenik, erabilera kolektiboko araudira egokitzea eta azkenik, energiaren eta uraren kontsumoa murriztea. Horretarako, egungo estaldura zeramikoa kendu, sakonera gutxitu (sakonerarik handiena metro bat eta 60 zentimetrotan utzita) eta gres ez labaigarri berriaz alikatatuko da. Obra egiteko 228.000 euro eta gehienez ere zortzi aste beharko direla aurreikusi da. Igerilekua, uztailaren 20tik aurrera itxita egongo da eta irailaren 8an zabaltzea espero da. Epe honetan zehar, erabiltzaileak Eibarko kiroldegiko igerileku estalira joan daitezke. Horretaz gain, kiroldegia uztailaren 25ean, 26an, 27an eta 31n eta abuztu osoa itxita egongo da.

**Mendekotasuna dutenen zainketarako
ikastaroak**

Laurogei ermuarrek hartu dute parte mendekotasun egoeran bizi direnen zaintzaile, senide eta profesionalak ez direnei zuzendutako ikastaro bitan. Udaleko Gizarte Zerbitzuak antolatu ditu ikastaro hauek eta dohainekoak izan dira. Guztira 28 orduko iraupena izan dute, 16 ordu mendekotasunak dituztenen zainketa eskaini dira eta gainontzeko 12ak, norbere zainketaren ingurukoak izan dira. Beste alde batetik, mendekotasun egoeran bizi diren Ermuko bizilagunei arreta integraleko zerbitzua emateko plataformak gida bat prestatu du. Honetan, mendekotasun egoeran bizi diren Ermuko bizilagunei laguntza emateko baliabideak biltzen dira: eguneko zentroa, etxeko-etxeko laguntza zerbitzua, janari banaketa etxeetan, telelaguntza, prestazioak... Informazio gehiago jasotzeko deitu 943179161 edota 943179162 telefonoetara.

**Abeletzeko egoitza martxan**

Dagoeneko 45 pertsona erabiltzen dituzte Abeletzeko instalazio berriak, 22 egoitzan eta 23 eguneko zentroan. Edadetuentzako egoitzak eta eguneko zentroak 165 erabiltzaileentzako lekua dute. Toki horietatik 130 erresidentziarenak dira eta gainerako 30ak eguneko zentroarenak, hurrenez hurren. Nagusientzako egoitzak 89 logela ditu, 43 banakakoak eta 46 bikoitzak. Azpiegitura horrek 7 milioi euroko kostua izan du, sei eraikitze eta bestea barrutik janzteko erabiliko direlarik. Santa Ana auzoan eta Abeletzeko zelaiaren magalean altxatzen den eraikinak 5350 metro karratutik gora ditu, sotoa, azpi-sotoa, hiru solairu eta atikoan banaturik. Eraikina Ermuko Udalak Bizkaiko Foru Aldundiari utzitako 2000 metro karratuko lur-sailean altxatu da.



www.lapulseradeermua.com



Oinetakoak

SEXTO CENTENARIO, 17
48260 ERMUA Bizkaia

(943) 17 13 44

Ondo pasa Santixauetan!!



hanigan's
Irish TAVERN

Gosari, bazkari eta afariak
-eramateko prestatzen dugu-

Pintxoetan eta
garagardoetan aukera zabala.

Astegunetan 7:00etan zabaltzen dugu.
Zapatu, domeka eta jaiegunetan, 10:00etan.

Komentukua z/g · 943030527



UZTAILAREN 24a, OSTIRALA

- 18:30ean: Orbe Kardinalaren plazan,
Tratu onen aldeko plataformak **TXAPEN
BANAKETA** egingo du.

- 19:00etan: Orbe Kardinalaren plazan
'Irulitxa' musika-bandak alaituriko
TXARANGEN AURKEZPENA eta ohiko
KALEJIRA herriko kaleetan zehar.

- 23:00etan: **DANTZALDIA** Orbe
Kardinalaren plazan
Pasarela orkestrarekin.

- 23:00etan: Valdespinako Markesaren
parkean **ROCK KONTZERTUA** Bizkaiko
Shinova eta Ermuko taldeen eskutik.
Herriko Musika Taldeen Elkarteak
antolatuta.

Pintxo eta gosariak

Goizeko 7:00etan
zabaltzen dugu

Karabixa 2 · Ermua



MERGA

HAMBURGUESERIA
TITANIC



Cantabria 2 · 48260 ERMUA (Bizkaia) · 943 17 67 83

Bodega
Sirimiri

Pintxo eta kazoletan espezialitatea
Eguneko menua 5'95 e
Goizeko 8:00etan zabaltzen dugu



Erdikokale 11 behea · 943 17 64 03

48260 Ermua
(Bizkaia)



**UZTAILAREN 25a, LARUNBATA
SANTIXAU EGUNA**

- 4:00etatik 6:00etara: Pasarela orkestrak **GAUPASA** girotuko du.
- 7:00etan: **TXOKOLATE-JANA** plazan.
- 7:30ean: Plazako pilotalekuan Txarangen batzordeak antolaturiko **BARRUS** partidak.
- 8:00etan: **BIGANTXAK** izango dira Beti Ondon jarriko den zezen-plazan, Rui-Bento Vasques Peña Taurinak antolatuta.
- 12:00/14:00etara eta 17:00/20:00etara: **HAURENTZAKO PARKEA** San Pelaion.
- 12:00etan Santiago Apostoluaren elizan **MEZA** izango da patrioiaren omenez.
- 12:30ean: **HERRI-KIROLA** plazan. **HARRI-JASOTZAILEAK**, Iñaki Perurena, Inaxio Perurena eta Agustín Landarbide; **AIZKO-LARIAK**, Bihurri, Ignacio Flores eta Zelai II; **FARDOA, INGUDEA ETA GURDIA**, Zelailuze.
- 17:00etan: San Pelaioko Bolatokian **BOLO-PALMA**ko Santixauak 2009 Saria Peña Bolística Montañesak antolatuta.
- 17:00etan: Aritzmendi pilotalekuan **PROFESIONAL ARTEKO ESKUPILOTA PARTIDAK**, Pilota Taldeak antolatuta.
- 18:00etan: Beto Ondon **ZEZENKETA** Salvador Ruano eta Juan Andrés



- González toreatzaileen eskutik, Lorenzo Rodríguez zezenekin, Peña Rui Bento Vasques-ek antolatuta.
- 19:00etan: Plazatik irtenda, **ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KALEJIRA** Ondalan konpartsaren eskutik.
 - 19:00etan: **GAITA POTEOA** Fouraleda taldeko gaita-joleen eskutik.
 - 20:00etan: **LARRAINDANTZA** plazan.
 - 20:30ean: Plazan **EUSKARAREN ALDEKO TOPA-KONPROMISOA**, Afaltazaindia taldeak antolatuta.
 - 22:30ean: Zindare taldearen 'La vuelta' **KALE-IKUSKIZUNA** San Pelaioko plazan.
 - 23:00etan: Plazan Geiser orkestrak **DANTZALDIA** girotuko du.
 - 23:00etan: Valdespinan **ROCK KONTZERTUA**, Acrata eta Los hermanos del Chumacho y Liberando el corazón taldeen eskutik. Herriko Musika Taldeen Elkarteak antolatuta.



MENDIOLA
Restaurante - Jatetxea

Erdikokale, 19
Telefonoa 943 17 22 43

48260 ERMUA
(Bizkaia)



UZTAILAREN 26a, IGANDEA

- 3:30ean: **DJ JAIA** plazan.
- 7:00etan: **TXOKOLATE-JANA** plazan.
- 7:30ean **BARRUS** partidak Orbe Kardinalaren plazako pilotalekuan.
- 8:00etan: **BIGANTXAK** izango dira Beti Ondon jarriko den zezen-plazan.
- 10:00etan: San Martin plazan VI. **BLOOD-BOWL TXAPELKETA**, Draconia rol-taldeak antolatuta.
- 10:00etan: San Pelaioko bolatokian **BIKOTE-ARTEKO EUSKADIKO BOLO-PALMA TXAPELKETA**, Peña Bolística Montañesa antolatuta.
- **HAURRENTZAKO PARKEA** San Pelaioko plazan ohiko ordutegian.
- 12:00etan: **NAGUSIEI OMENALDIA** egingo zaie eta sariak entregatuko zaizkie Nagusien Etxeak antolatutako lehiaketa ezberdinetako irabazleei.
- 12:30ean: Orbe Kardinalaren plazatik irtenda, **ERMUAN KANTUAN KALEJIRARI** emango zaio hasiera, Euskal Birusak antolatuta.
- 13:00ean: Alboka Musika Eskolako Bandak **KONTZERTUA** eskainiko du Orbe Kardinalaren plazan.

- 14:00etan: Aritzmendi Pilotalekuan Nagusien Etxeak **HERRI BAZKARIA** eskainiko die aitona-amona bazkideei.
- 17:00etan: San Pelaioko bolatokian, **BOLO PALMA PARTIDAK**.
- 18:00etan: **ESKUPILOTA** partidak izango dira Orbe Kardinalaren plazan, Pilota Taldeak antolatuta.
- 19:00etan: Solo Manolo artistak 'Lokomotivo' **KALE-IKUSKIZNA** eskainiko du Orbe Kardinalaren plazan.
- 19:00etan: **KALEJIRA** Irulitxa musika-bandak alaituta.
- 20:00etan: **LARRAINDANTZA** Orbe Kardinalaren plazan.
- 22:30ean: Gaitzerdi taldeak, 'Otsoko' **KALE-IKUSKIZUNA** eskainiko du San Pelaioko plazan.
- 23:00etan: Nuevo Talismán Orkestrak, **DANTZALDIA** alaituko du Orbe Kardinalaren
- 23:00etan: Valdespinako Markesaren parkean **ROCK KONTZERTUA**, Herriko Musika Taldeen Elkarteak antolatuta. Honako taldeak izango dira: Bartzelonako Trece eta Ermuko taldeak.

Bar London
Komentukua 2, Ermua
Tlf: 943173312

Kardena Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com



**UZTAILAREN 27a, ASTELEHENA
ZEZEN EGUNA**

- 3:30ean: **DJ JAIA** plazan.
- 7:00etan: **TXOKOLATE-JANA** plazan.
- 7:30ean: **BARRUS** partidak Orbe Kardinalaren plazako pilotalekuan.
- 8:00etan: **BIGANTXAK** Beti Ondon.
- 10:00etatik 11:30era arroza banatuko da Valdespinako parkean eta, ondoren, **PAELLA LEHIAKETA** hasiko da.
- 11:00etan: Valdespinako Markesaren parkean **SARDINA BANAKETA** nahi duen guztiarentzat, Nagusien Etxeak antolatuta.
- **HAURRENTZAKO PARKEA** San Pelaioko plazan ohiko ordutegian.
- 12:00etan: **KALEJIRA** Alboka Musika Eskolako trikitilariak alaituta.
- 12:00etan: Ermua (San Pelaio)/Comillas (Kantabria) arteko estatu mailako **BOLO-PALMA** partida, Peña Bolística Montañesak antolatuta.
- 14:00etan: lehiaketara aurkeztutako pla-

terak **DASTATUKO DIRA** eta ondoren ohiko **HERRI BAZKARIA**.

- 14:30ean: **SARI-BANAKETA** Valdespinako parkean.
- 18:00etan: **ERROMERIA** plazan, Lotxo taldeak alaituta.
- 18:30etan: Beti-Ondon jarriko den zezen-plazan **ZEZEN-JAIALDI HERRIKOIA**, Rui Bento Vasques taldeak antolatuta.
- 19:00etan: Plazan **AURRESKUA ETA LARRAINDANTZA** nahi duen guztiarentzat.
- 20:00etan: **ERROMERIA** Lotxo taldeak alaituta.
- 22:30ean: Irulitxa musika-bandaren **ONGIETORRIA** Orbe Kardinalaren plazan.
- 00:00an: **SUZIRIAK** Ongaraiko parkean. Ondoren **KALEJIRA** plazaraino eta bertan jaiei agurra emango dien **AGUR JAUNAK**.
- 00:30ean: **JAIEN AMAIERA** Helena Bianco y Los Mismos taldeak alaituta Orbe Kardinalaren plazan.



**Santixauetan
EUSKARA
MINGAINEAN**

Euskal Birusa Elkartea

GARAGAROTEGIA

CERYECERIA

ZYTİK

OTARTEKO eta
INPORTAZIOZKO
GARAGARDOtan
bereztasuna



Lorea Arrizabalaga Bizkaiko jokalaria onena

15 urte besterik ez dituen Ermuko Lorea Agirrezabalak, Bizkaiko kadete mailan, lehen urtea egin duen jokalaririk onenaren saria jaso zuen pasa den ekainaren 26an Bilbon egin zen ekitaldian. 6 urtez geroztik eskubaloian ari da Lorea eta momentu honetan, Espainiako selekzioaren deia jaso ostean, kontzentratua dago Sorian. Berarekin dira halaber, Irene Oneka eta Arantza Moreno ermuarrak ere. Irene, Lorearen maila berean, kadete mailan eta Arantza infantil mailan hain zuzen. Hiru jokalaria, Errotabarri eskubaloi taldeko kideak dira.



Pilota partiduak Santixauetan



Urtero bezala Ermuko Pilotazaleak klubak bi jarduera antolatu ditu Santixau jaietarako. Uztailaren 25ean, Cabrerizo II - Urberuaga bikotea Ibai Pérez - Arrutiren kontra jokatuko dute eta bigarren partiduan, Titin III - Zubieta bikotea Xala - Goñi III. ren kontra. Partiduak Aritzemendi pilotalekuan izango dira, 17:00etan, eta prezioak honako hauek dira: Kantxako 1.go eta harmailako eserlekuak 25 euro eta kantxako 2., 3. eta 4. lerroko sarrerak, 20 euro. Sarrerak Lobiano Jauregian jarriko dira salgai eta aurtun, gainera, alde zurretik

erreserbatu ahal izango dira Ermuko Pilotazaleen blog-ean (www.ermukopilotazaleak.nireblog.com) edota 652715285 telefono zenbakian. Uztailaren 26rako, berriz, Ermuko Pilotazaleak klubak berritasunak dakartza, nesken arteko pala partidua jokatuko delako: Inge - Pradera eta Uriona - Abaskalen kontra. Pradera mallabitarrek iaz ere jokatu zuen Ermuko Santixauetan egondako esku pilota partiduan, bere osabarekin batera, Olatz Gil eta Iñaki Delgadoren kontra. Bigarren partidua, Azkarai - I. Etxebarría eta Moure - Thateren artekoa izango da. Partiduak 18:00etan hasiko dira, Kardinal Orbe plazan.

Jon Idigoras, Manuel Balsa 'El Ruso' lehiaketan saritua



Bilboko Arte Berreginen Museoko irakaslea den Manuel Balsa 'El Ruso' ren omenez ekainean egindako pintura txapelketan Jon Idigoras ermuarra izan da garaile. "Pintore amateur honek bere pinturan trebetasun handiz erakutsi zituen Martzana kalearen eguerdiko argiaren eta itzalen efektuak", 'El ruso' ren esanetan. "Bera metalurgikoa da ofizioz, 56 urte ditu eta duela 30 urte baino gehiagotik parte hartzen du antolatzen diren pintura txapelketetan", Bilbao.net web orriaren arabera. Lan honi esker, Idigorasek

1.000 euroko saria eskuratu zuen. Horretaz gain, uztailaren 5ean, Laguardiako II. Pintura Lehiaketan ere lehen saria lortu zuen.

MONGOL-RALLYRAKO IRTEERA

Aurreko ostiralean, hilak 17, Ermulanmallabia taldeko Unai Bergaretxek, Josu Azpirik, Miguel Moyanok eta Erik Del Ríok Mongol Rallyrako irteera egin zuten. Guztira 500 taldek baino gehiago parte hartuko dute. Ulan Batorrera heltzerakoan kotxeak enkantean jarriko dira eta lortutako dirua bertako GKEen artean banatuko da. Rallya jarraitzeko, www.ermulanmallabia.es web orrian sartu.

MANOLO MENDEZ FRANKFURTEKO TRIATLOIAN

Europako Ironman txapelketa ospatu zen uztailaren hasieran Frankfurturten eta bertan Manolo Mendez ermuarrak parte hartu zuen. Sailkapen orokorrean 46.a geratu zen (3.000 kirolarien artean) eta Europa mailan, bere adinaren mailan, 8. postua lortu zuen. Bere hurrengo helmuga, Hawaiiko Ironmanean dago. Bertan, 2007an lortutako marka gaintzea espero du.

AUSTRIA KALENJI, ZALDIBAREN GARRAILE

Austria Kalenji talde ermuarrak garaipena lortu zuen 2. urte kontsekutiboz Zaldibarko XIX. Futbito Maratoian. Durangoko Recambios Sagastaren kontra jokatu zuten final neketu bat eta azkenean penaltietan ermukoek irabazi zuten. Honi esker, 1.000 euroko saria eskuratu zuten.

QUETZAL
gazte denda
Baietz topatu
gustuko
zeozer?
Goienkale 9
943 17 00 65

Proba-Leku
Heapaindegia - Estetika
Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

PRODUCTOS
URDAITEGIA - CHARCUTERIA
MAYTE
Plaza del Mercado
Tel. 17 24 12
ERMUZ

CITROËN
AUTOS AMEDI
Zearreko buelta 3 L8 pab.
Tel. eta Faxe. 943 17 04 14

TXIKURIXA

OIN DALA 90 URTE, UDALAK SANTIXAUETARAKO SUBASTARA ETARATZEN EBAN TABERNIARI TXIKURIXA DEITZEN JAKON.

Plazako bi arbola haundiren artian, alkar jositxako ohol batzuekin atontzen zan. Ipiñi bai eta astietarako egoten zan bertan: Santixauetako lau egunetan, S. Inazio egunian eta honen hurrengo domekan be -baserritarren “Hazi Eguna” modura ezagutzen zan jaixegunian- zabaldu eitxen zan. Gaur egunian haren lekua Orbe Kardinalaren 2 eta 4 zenbakixen arteko leku zabal horrek betetzen dau, San Martinetako TXIKURIXA egoten dan lekutik pare bat metrora.

Kitaiponeko txosna haretan, mostradorra ez beste dana gorde eitxen zan; arda, patxar, gaseosa eta umientzako freskagarrixok gabero erretiratzetan ziran alboko peorara. Goizaldeko ordu txikixetan itxitxa egoten zan; gaupasa eitxe kontuok gerora etorriko ziran!



Herriko tabernari edo talderen bat kargutzen zan harekin. Aurreko astian urtetzen eban subastara Txikurixorrek eta benetan partikularra zan enkantiori eitxeko modua: poxpolu bat ixotu eta batek pujan diru-kopuru bat

esaten eban. Ixotuta euan bitxartian, kopuruori goitxik jo eta bateron batek aurrekuarena gehitzen bae eban, poxpoluori amatau eta beste bat ixotzen zan.

Total amatau aurretik, enkatiar arduratzen zan, abisu modura esaten

ei eban: “Hauxe da mutua!”, gauzia akabatzeaz zegoela eta pujatzaillik ziztatu guran edo. Poxpolua berez amatatzen zanian, azken prezixua esandakuari emoten jakon urte horretako TXIKURIXAren kargua.

Erretratuetan TXIKURIXA gain, bezeroz beteta eta dindirrixekin apainduta berau, ondoko eraikina bistaratzen dira: batian plazara sartzeko arkodun atia eta Udaletxe zaharraren hegaltxo bat; bestian eskolia, maixumaistren etxia, Telefonika, Berdura Plazia, “Porruleku” dantzalekua, Udaltzaingoa, Gazteen Informazio Bulegoa eta Jubiletzia izandako etxe multifuntzionala. Zezen Egunian etara zitxuan Ignacio Urretak argazkixok eta 1963ko hau izan zan paraje horretan TXIKURIXA azkenengoz jarri zan urtia.



Drogeteniituri, 170 zkia.

Piedi Eizagirre eta Nagore Espilla, Euskal Biruseko kideak: "Jai giroan gure presentzia ordu ezberdinetan bermatu nahi dugu"

Txikurixa jarriko du Santixauetan Euskal Birusak lehenengoz, jaietan euskararen presentzia bermatzeko eta taldeak aurten martxan jarri dituen proiektu berriak finantzatzen laguntzeko. Txikurixa Erdikokalen egongo da, lehen Bolintxo okindegia zegoen tokian.

-Zergatik erabaki duzue aurten txikurixa jartzea?

Euskal Birusaren eta batez ere euskararen presentzia jaietan oso garrantzitsua delako. Orain arte, txapak, pegatinak, ekitaldi ezberdinak antolatu ditugu eta aurten pausu bat gehiago ematea erabaki dugu Txikurixa jarri. Gainera oso aukera ona izan dugu lokala Izagirre familiak utzi digulako. Benetan esker-tzekoa da jai gunean bertan, erdi-erdian euskararen presentzia bermatuta egongo delako.

- 'Txosna' barik, 'Txikurixa' erabiltzen duzue lokala izendatzeko. Zergatik?

Euskal Herrian txosnak eta txosna-guneak egon baino lehenago, Ermuan Txikurixa egoten zelako. Orain dela 90 urte Santixauetan plazan jartzen zen txosna, Ermuan Txikurixa zen. Beraz, bertako hitza denez, guk berreskuratu nahi izan dugu. San Martinetan Euskal Birusak plazan jartzen duen txosna ere, San Martineko Txikurixa da.

-Txikurixan pintxoak eta

bokatak emango dira?

Eguedian zabalduko da, arratsalde ere zabalik egongo da eta gauez tartetxo batean ere bai. Pentsatzen dugu jai giroa ez dela gauera mugatzen eta jende asko egunez bizi duela festa. Beraz, ekitaldi ezberdinak daudden heinean, guk gure presentzia ordu ezberdinetan bermatu nahi dugu. Eguerdian pintxoak egongo dira eta iluntzean bokatak prestatuko

ditugu.

-Zertarako erabiliko du Euskal Birusak egun horietan ateratzen duen dirua?

Aurten Euskal Birusaren XX. urteurrenarekin batera, hedabideen arloan hainbat berrikuntza egin ditugu. Alde batetik, Drogeteniturrri hila-betekariaren tirada handitu egin da 300 aletan eta maiatzetik aurrera guztira Ermua eta Mallabian 2000 ale banatzen ditugu doan. Era berean, maiatzean Euskal Birusaren webgunea sortu eta martxan jarri genuen, www.euskalbirusa.org. Beraz, orain arteko proiektuei eutsi egin diegu eta berriak jarri ditugu abian. Horrek esfortzu ekonomiko handia suposatu du eta krisiak ere eragin digu; diru sarrerak murriztu dira, diru laguntza gutxiago eta

publizitate sarrera gutxiago izan ditugulako. Horren guztia ondoz, diru sarrerak handitzeko iturri berriak jorratzea pentsatu dugu, esaterako taberna hau.

-Txikurixan nola lagundu daiteke nahi izanez gero?

Laguntzeko modu ezberdinak daude: Txikurixan txandak eginez, tortillak ekarrita, sukaldean lagunduz, jaiak bukatu eta jasotzen lagunduz... eta batez ere lantzean behin bertan pote bat hartuz. Edozein dela laguntza, 943 179350 edo 688632874 telefonoetara dei daiteke. Arestian aipatu bezala, ez da soilik gauean egongo zabalik, beraz, edonork lagun dezake egunez edo gauez, ez baitago adinik laguntzeko, ezta jai giro euskaldunaz gozatzeko ere.

Alazne Aiestaran



AHOLKULARITZA FISKAL ETA LEGALA
URIARTE IRAEGI, S.L.

Komentukoa 3
Telefona: 943 17 33 87 • 48260 ERMUA (Bizkaia)

ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOA

EGAÑA

ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR

Drogeteniturrri, 170 zkia.

Ermuko eskumuturrekoa jaio da

Hilabeteko lana eskatu dio Senén Bravo bitxigile ermuarrari herriko eskumuturrekoa diseinatzeak. Zilarrezko pipitekin eginda dago eta hauetan, herriko sinbolo adierazgarrienak ikus daitezke.

Uztailaren hasieran Ermuko eskumuturrekoa aurkeztu zuen Senén Bravo bitxigileak. Honek 925 zilarrezko 6 pipita ditu eta haue-tariko bakoitzean, Senéne arabera, herriko eraikin eta sinbolorik adierazgarrienak daude grabatuta: Udaletxea, Lobianoko jauregia, pispilua, Santiago Apostoluaren eliza, San Antonio basiliza eta Ermuko armarria.

Gainera, eskumuturrekoak domina txiki bat izango du pipiten artean eta honek Ermua izena izango du grabatuta alde batean eta Bizkaia hitza beste aldean.

“Proiektua hau aspaldidantik nuen buruan bueltaka, beste herri batzuetan ere egin delako, Burgosen esate-

rako, eta arrakasta itzela izan duelako”, dio Bravok. “Azkenean, duela hilabete hasi nintzen lanean eta hona hemen emaitza”. Pipita denak argizari-emandako kotoizko kordelari lotuta daude. Kordela kolore ezberdinekoa izan daiteke: gorria,

laranja, berdea, marroia, artile-kolorekoa edo beltza eta neurri ezberdinekoak: 17, 18 edo 20 zentimetrokoak. “Egia esan, edozein neurria egokitu daiteke Ermuko eskumuturrekoa, kordelak korapilo batzuk dituelako eta horiekin jokatuz, tamaina handitu edo txikitu daiteke-lako”, dio bitxigileak.

Diseinatzerakoan “beste material batzuk erabiltzea pentsatu genuen, larrua adibidez, baina kotoizko kordela nahi beste bider garbitu daiteke eta oso erresistentea da”, dio. “Eskumuturrekoa

edozein arroparekin ondo geratzen da eta erlojuaren ondoan jar daiteke. Gainera, adin guztietako jendeak erabil dezake”.

Momentuz 100 unitate ipini ditu Senének salgai eta horien prezioa 69 eurokoa da. Interesa dutenek, San Pelayo kalean dagoen Senén bitxidendarara jo dezakete. Gainera Internet bidez ere eskumuturrekoa erosteko aukera dago, www.lapulseradeermua.com edo www.senen.org web orrietan.

Dorleta Vidal



Harategia



M. LAZKANO

BERTOKO OKELAK
Geure Baserrian
Hazitako Txalak

GEUK GIZENDUTAKO
ABELTZANTZA

Merkatua, 36-37 zbk.k
Tfnoa. 943 17 05 84

Ermua

OPTICA J. CASADO



Lenteak
Audifonoak
Graduatutako Antiajuak
Eguzkitako Antiajuak

Kantabria, 2
Tfnoa. 17 33 57

ERMUA

MIGUEL Harategia



TXORIZOAK
ODOLOSTEAK

Probaleku, 3

☎ 17 05 63

ERMUA
(Bizkaia)

drogeteniturrri

Euskal
Birusa
Elkartea



943 17 93 50
Elexoste

Pedro Horrillo:

“Armstrongek ere bere babesa eskaini dit”

1 2 urte txirrindularitza profesional mailan. Bi hilabete besterik ez dira pasa Giroa korritzen ari zela izugarrizko erorikoa izan eta hil edo biziko egoeran izan dela. 5 egun eman zituen koma egoeran, baina jada Abadiñon duen etxean da. Gertutakoaz oroitzen ez den arren, pozik da aurrera egiteko gogoz, medikuen esanetan, hemendik gutxira, gauzak bide onetik baldin badoaz, bizitza arrunta egiteko aukera izango duelako.

-Zer moduz zaude?

Izan nuen erorikoa izan ostean, pozik. Zorte handia izan nuela aitortu didate medikuek. 13 saihestu apurtu zitzaizkidan eta haietako batzuk birrikak zulatu zitzaizkidan; odol asko galdu nuen, arnasa hartzeko hainbat arazo, bizkarhezurreko eten txiki batzuk, belaanean eta buruan izugarrizko kolpeak... eta hemen nago gogotsu aurrera begira!

-Orain etxean ari zara ariketak egiten...

Apurka-apurka hobetzen ari naiz. Oraindik ez naiz bizitza arrunta egiteko gai, baina gauzak bide onetik badoaz, hemendik hilabete t'erdira bizitza arrunta egiteko gai izango naizela uste dut.

-Makina bat dei eta mezu jasoko zenituen...

Emazteak esan zidan nire istripuak oihartzun handia izan zuela komunikabideetan eta egia esan, dei, mezu, bisita, opari asko egin dizkizate eta denei nire eskerrik beroenak eman nahi dizkiet, baita Ermuan nire alde babesa eskainiz sinatu duten guztiei ere.

-Istripuak zer irakatsi dizu?

Bizitza honetan gauza edo gertakizun onak zein txarrak, biek in ikasten dela. Ez duzu sekula pentsatzen halako zozter gertatu dakizuenik, baina gertatu da eta aurre egin behar zaio. Horixe izan da nire lema, nire 2 seme alaba eta senideengatik datorrena datorrela aurre egitea merezi duela.

-Orain Tour-a korritzen ari dira lankideak. Zu kazetari lanak egiten...

Inbira sentitzen dut han egoteko aukerarik ez dudalako, halako paraje ederrak ikusi eta ezin gozatua. Horren ordez, EL PAIS egunkari-rako zutabe bat idazten ari naiz eguneroko etapei nire ikutu pertsonala erantsiz. Duela 7 urte hasi nintzen kazetaritzan eta gustuko dut hori ere.

-Aurten Armstrong-en itzulerak eman du zeresana...

Itzuli baldin bada ez da dirua arazoia. Uste dut txirrindularitza, lehia eta preskuntza bere bizia direla



konturatu dela. Tour-ari ere eman dio ikutu eta emozio puntua. Irabaztea zaila izango duen arren, lanak emango dizkie gainontzekoei. Nire ustez berak irabaziko balu ez litzateke txirrindularitzaren zatitza ona izango.

-Armstrong-ek ere pasa zituen urte latzak...

Lehenago ez nuen bere aldeko ez aurkako iritzirik, baina egia esan, nire istripuaren ostean, mezuak bidali dizkit ea zer moduz nagoen galdeka eta bere eskutan dagoen edozer nire eskura jartzeko eskaintza eginez. Benetan eskertzen diot izan duen jorkaera.

- Aitor Galdos, Aitor Hernandez... Zer moduzko

etorkizuna ote dute berriek?

Aitor Galdosek aukerak irabazteko urte latzak pasa zituen Italian eta merezitako saria lortu zuen Euskaltelek fitxatu zuenean. Iaz izan zuen eroriko larriaren ostean, aurten denboraldi polita burutu du. Milan-San Remo egindako postua ere itzela izan da. Aitor Hernandez ere ondo ari da. Gaztea da eta jauzi txiki bat eman beharra dauka froga handietan aukerak izateko.

-Besterik?

Nire seme alabekin egoteko inoiz baino asti gehiago izaten ari naizen arren, irrikitan nagoela berriz ere bizikleta gainean aritzeko.

Asier Ibaibarriaga



optika
itze

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51



NATURHOUSE
NUTRICION Y DIETETICA

“Adituak gara ondo elikatzen irakasten”

AINARA IRIONDO ANSOLA
Giza elikaduran eta Dietetikan Diplomatu

Komentukua 1, behea
943 17 63 72

I R E N E I R I O N D O

-Zer nolako ikaslea zinen?

Ez nintzen ikasketa zalea, baina ondo moldatzen nintzen.

- Ikasketarik?

Magisteritza amaitu nuen, baina esperientzia eskas batek ogibide hori moztu zidan.

- Ostalaritzan...

Eibarren hasi nintzen taberna batean eta ondoren Txalaparta ireki genuen. 25 urte pasa dira aurten.

- Zure lanaren alde onena eta txarrena?

Onena, jende asko eza gutzen duzula eta okerre-na, ordutegia.

- Izaera gogorra duzu...

Bi izaera garbi omen ditut. Bata irrifartsua eta bestea haserre bizian egoten naizenezkoa.

- Zerk jartzen zaitu sutan?

Gezurak eta injustiziak
- Bikote asko egingo ziren zuon tabernan...

Hainbeste urteren ostean, normala da. Egin dira bai banaka batzuk.

- Bezero bereziak ere izango ziren...

Baditugu urteetan fidel-tasun osoz makina bat ordu gurekin pasa dituztenak. Nikolas Unamuno zena adibidez.

- Trago bat?

Garagardoa.

- Urteotan zer aldatu da taberna giroan?

Hasierako urteetan pozik ginen, baina azken urteotan gauzak asko okertu di-



Eibartarra jaiotzez nahiz eta aspalditik Ermuan bizi den. Ahizpa biren artean zaharrena. Ostalaritza du ogibide. Azken 25 urteak Txalaparta tabernan daromatza. Irrifar zabalekoa eta alaia. Margolaritzan duela 7 urte hasi eta Ermuko Lobianon ireki berri du bere lehen margo erakusketa. Pozik eta harrituta utzi omen du jendea, bera barne.

ra. Gurean krisia aspaldi sumatu dugu. Ermuan aste-buruak hilda daude.

- Margo erakusketa ireki berri duzu...

Oso pozik nago lortu dudana emaitzarekin. Jendeak ere bere harridura eta poza helarazi dit. Iazko urrian hasi eta gaur egun arte egindako lanaren emaitza izan da.

- Zer da zuretzat margo-

tzea?

Laguntasuna, lasaitasuna... eguneroko jardunetik ihes egiteko ezinbesteko tresna.

- Margolari bat?

Sorolla.

- Margotu, baina zer?

Momentuz aurpegiak, erretratuak; horiek ditut gustuko.

- Kolore bat?

Udazken koloreak ditut

gustuko. Kolore biziak, gorria, horia eta laranja.

- Bete gabeko ametsik?

Margolaritza barruan nuen eta hori atera izana izan da nire ametsik gozoe-netakoa.

- Baserrian bizitzeko aukera bazenu...

Ni kaletarra naiz. Baserria lasai egoteko bai, baina han ere lan asko egin behar da.

- Jateko platera...

Makailaua.

- Oporretarako lekua...

Conil, Cadiz aldean.

- Irratia...

Gauetan sarritan bere laguntzarekin lo hartzen dut.

- Egunkaria...

Azkenaldian begirada bat besterik ez diot ematen.

- Egoera politikoari buruz zer diozu?

Nekatu samar nago. Beti egurra jasotzen, egoera okerrean beti berdinak, egoera hobetuko dela, baina beti berdin.

- Santixauak badatoz...

Jada ohituta gaude eta prest.

- Jaiak bai, baina nongoak?

Bilbokoak dira onenak.

- Abeslari bat?

Mikel Laboa.

- Tabernan noiz arte?

Nekatuta gaude, hainbeste urteren ostean nekea sumatzen da. Ea laster jubilatzen naizen, horixe esaten diot jendeari noiz arte galdetzen didatenean.

Asier Ibaibarriaga

ILEAPAINDEGIA
Izaskun
 Goenkale, 9 (Plaza San Martin)
 48260 Ermua Bizkaia
 Tel. 943.17 66 90
ILEAPAINDEGIA

komunitateak
 aseguruak
San Pelayo
 aholkularitza
 fiskal eta juridikoa
 Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
 San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

PUB YOMY
Zubiaurre
kalearen
bihotzean



Uztailak 24
Zorionak Amaia! Nahiz eta urtebete zaharragoa izan, etxeko txikiena izaten jarraitzen duzu. Muxu bat.



Uztailak 27
Zorionak Amaia zeure gurasoen partez. Egun eta urte polit eta zoriontsua izatea espero dugu. Muxu eta besarkada goxo-goxo bat.



Uztailak 26
Zorionak Amato!!
Marrubizko musu handi-handi bat!!!



Abuztuak 25
Zorionak Iraia zure lehenengo urtebetetzear!!
Musu handi bat, Sorgintxo!!!



Abuztuak 17
Zorionak Aner!!! Jada 3 urte!!! Ondo pasatu eta musu erraldoi bat!!



Uztailak 26
Zorionak Rober!! Aupa txo!!
Ondo pasatu eta besarkada handi bat!!



Abuztuak 4
Zorionak Mutil!!! Besarkada handi bat eta ondo pasatu.



Uztailak 15
Zorionak!!!Eta muxu asko etxekoan partez.



Uztailak 27
Zezen egunian, Santixau jaixak ondo amaitzeko ta zeure urtebetetzia ospatzeko, ia urtero lez, pastel gozo-gozue ekartzen doskuzun... Zorionak Maite!



Abuztuak 26 eta Uztailak 21
Zorionak bikote familia guztixan partez!!! Urte askotarako!!



Uztailak 10
Zorionak txiki!!! Salamankako txorixuak ederrak daoz baina euskal pastela...



Uztailak 23
Zorionak gure etxeko 'txiki-xa'ri!!!! Pitxin, ondo pasau eguna, Santixauak ta datorren guztia!

Zer edo zer saldu, erosi edo alokatu nahi baduzu, bidali zure iragarkia drogeten@gmail.com helbidera edo 943 17 93 50 telefonora deitu. Bestalde, norbait zoriondu nahi baldin baduzu, Drogeteniturrin kaleratu ditzakegu zure lagun edo senideen argazkiak eta zorion agurrak. Bidali helbide berdiner.



**MUSIKA
ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardinoa
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

OUTUMURO KAFETEGIA

- Kafe bereziak
- Aukera handia **TE** eta **INFUSIOETAN**
- Tarta bereziak

• *Astelehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu*



Tere Lartitegi

ERMUKO EMAGINA

Hurrengo eguneko pilula

Babes nahikorik gabe edo babesik gabe edukitako harreman sexual baten ondoren haurdunaldi bat prebenitzeko aukera da. KONTRAZEPZIO edo ANTISORKUNTZA bat da, ernalketa hasi aurretik hartzen delako eta LARRIALDIKOA DA, ezohiko egoera baten ondoren ematen delako. Zenbat eta arinago hartu bere eraginkortasuna handiagoa da. Ez du haurdunaldia eteten, ezta garatzen hasia den enbrioia kaltetzen.

Osasunaren Mundu Erakundeak, beste erakunde batzuk bezala, metodo zurrak eta eraginkorra dela dio. Pilula eskuratzea errazagoa izan beharko litzatekeela irizteaz gain, herrialde ezberdinetako osasun programetan sartzea egokia dela deritzo.

Metodo hau, babesik gabeko harreman sexual bat eduki ondoren ernalketa saihestea nahi eta espresuki eskatzen duen emakumearentzat da. Babesik

gabe harreman bat eduki duten edota kondoia apurtu edo barruan geratu zaien gazteek eskatzen dute gehienbat; hala ere, beste kontrazepzio metodo batzuen akatsen ostean edo bortxaketa baten ondoren ere erabili daiteke. Argi izan behar da zikloaren edozein egunetan haurdun geratzeko arriskua dagoela. Babesik gabe harreman sexual bat eduki duten ehun emakumetik, zortzi haurdun geratzen dira; biharamuneko pilula hartuta, ehunetik bat.

Urte askotan hartzen ziren pilulak (2 pilula batera, 12 orduko tartearekin), beharrezkoa zuten aurrez mediku batek balorazioa egitea. Baina gaur egun botiketan eskuratu daitekeen pilula (dosi bakarra) osasun agintariak larrialdizko kontrazepzio bezala baimendutako tratamendu bakkarra da; hartzeko ez da froga edota miaketa osagarrikerik behar.

Emakumeek jakin beharrek:

- Ez du haurdunaldia eteten.
- Ez da teratogenoa (garatzen dagoen fetuari ez dio kalterik egiten).
- Ez da ohiko metodo kontrazepzioa.
- Bigarren aukera bat da.

 Osakidetzak biharamuneko pilula Osasun Zentroetako larrialdi zerbitzuetan eskaintzen du eta

erabiltzaile bakoitzaren historial informatizatuak emakumearen aurrekariak ezagutzea ahalbidertzen du. Honekin batera, azken hilekoaren edota babesik gabeko harreman sexualaren data eta transmisio sexuareko gaixotasunen arriskua erregistratuta geratzen dira. Nerabe askorentzat istripu hau izan ohi da emakume heldu bezala osasun zentroarekin lehen kontaktua; hori dela eta aukera ezin hobea da kontrazepzio metodoen erabilerari edota bere osasun sexualari buruz informatzeko.

Sexualitatea pertsona bakoitzaren parte da, jaiotzen garenetik hil arte; positiboa eta beharrezkoa da gizakiarentzat, era asko eta ezberdinetan ematen da. Nerabezaroon nabarmentzen da eta gazteek gozatzen ikasi behar dute, osasunari kalte egin barik. Guraso, hezitzaile eta osasun arloko profesionalen betebeharra da nerabeen heziketa afektibo-sexualaz arduratzea. Osasunaren Mundu Erakundearen arabera nerabezaroa 14 urtetik 18 urtera arte izaten da; aldaketa epe bat, haurtzarotik heldu izatera garamatzana, lehen erabakiak hartzeko sasoia, aukerak egitekoa, pertsona heldu eta autonomo izatea ahalbidertatuko duten esperientzia hartzen hasteko garaia...

Ezohiko egoera baten ondoren ematen da

Σ REMU AKADEMIA

ez zaitez atzean gelditu, zatoz guregana!

Diputazio, 15 - behea 943 17 01 88

Ardo banatzailea:

Riedel	Hugel&Fills
Avgvsivs	Anima Negra
Clos Mogador	Trache
Yllera	Cillar de Silos
Cantosán	Vriego
Luis Cañas	Laurona

DISTRIBUCIONES ARRAL
TELEFONOA: **943 17 60 75**

Zer iruditzen zaizu hurrengo eguneko pilula errezetarik gabe lortu ahal izatea?

Pentsa daiteke jendeak erabil dezakeela antisorgailu moduan, baina suposatzen da sexu harremanak izateko adina dutenez, aurrera pausu bat dela emakumearentzako askatasun hori izatea. Gero, norberaren kontzientzia izango da, erabilera egokia egin ala ez.



Olatz Zaitegi. 38 urte. Langilea



Uste dut ez dela aspirina bat, beraz ez litzatekeela hori bailitzan hartu behar. Halaber, kasu bakoitza aztertzea litzateke egokiena, bestela badago arrisku bat modu egokian ez erabiltzeko. Inportantea litzateke sexu-heziketa egokia izatea.

Elena Pérez. 41 urte. Langilea

Ondo iruditzen zait jendeari erraztasunak ematea. Hau da horrelako egoera batean zaudenean, lehen bai lehen hartu ahal izatea. Adinari dago-kionez, 16 urtekoei ere banatuko zaiela uste dut. Adin horrekin espetxera joan badaitezke, zergatik ez pilula erostera?



Felitxo Araiztegi. 36 urte. Langilea



Ondo ikusten dut, jendeak ez baitu kapritxo hartzen hurrengo eguneko pilula. Hau da larrialdi neurria da, arazo asko konpon ditzakeena eta erraztasunak ematea beti dago ondo.

Jesus Mari Bernal. 37 urte. Langilea

Gaizki iruditzen zait, pilularen erabilera desegokia egin daitekeelako. Hau da, larrialdi metodo gisa erabili beharrean, ohiko anti-sorgailu moduan erabili daiteke, errezetarik gabe errazago lor daitekeelako.



Olatz Naverán. 28 urte. Langilea



Nahiko gaizki iruditzen zait, oso erraz lor daitekeelako eta jendeak arinkeriaz erabil dezakeelako. Aurretik metodoak jarri beharrean, pilula bera antisorgailu gisa erabiliz.

Jon Cejuela. 25 urte. Langilea

Testua: Alazne Aiestaran

ARRIETA CORDEVI

Elektratresnak, telebis-tak, bideoak, musika, aparatoak...

...prezio eta kalitate ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

Euskara eta euskaltegia egin biak zureak



**Teresa Murga, 2. solairua
Tel. 943 17 09 25**



**Zubiaurre 14
Telef. 943 17 28 88
48260 ERMUA**

EGUZKI LORE

TRABAKUKO IGOERA

Hilak 14:
 Trabakuko igoera
 herrikoia txirringaz,
 Patxi plazatik irtenda.
 16:00etan.

UDAKO ZINEA

Hilak 3:
 'Un verano en la
 Provenza'.

Hilak 5:
 'Las chicas de la
 lencería'.

Hilak 10:
 'En el nombre del rey'.

Hilak 12:
 'Posdata: te quiero'.

Hilak 17:
 'Sukalde kontuak'.

Hilak 19:
 'Un novio para
 Yasmina'.

Hilak 24:
 'Mi novio es un ladrón'.

Hilak 26:
 'Ella es el partido'.
 22:00etan. Orbe
 Kardinalaren plazan.
 Euria badago, emanal-
 diak elizako aterpeetan
 izango dira.


Patxi Lopez

Santixauetan EUSKARA MINGAINEAN



Euskal Birusa Elkarte

PEGATINAK TABERNETAN ESKURAGARRI



IKASTOLA
 38 urte Ermua
 euskalduntzen




TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko



Enter
 INFORMÁTICA
 SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA
 VI Centenario 19, behea
 Tel. 943 17 90 37
 e-maila: enter-i@arrakis.es

PRO



- ARRAINDEGIA
- ITSASKIAK
- ARRAIN FRESKOAK ETA IZOZTUAK

ESKAINITZA BEREZIA
OSTRALERO

Zubiaurre, 21 baxua
 Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
 " 17 24 33 (etxea)
 Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
 ERMUA

GREMIOEN GIDA

DEKORAZIOA
OBREN KOORDINAZIOA * MARIAN CARRACEDO DEKORATZAILEA

dekorazio estudioa

trastévere
baruko dekorazioa

san pelaió, 26 ermua
tel/faxa. 943 17 90 89
trastevere@wanadoo.es

ITURGINTZA

FONTANERIA
B. DE DIOS

Baimendutako instalatzaileak
iturgintza, gasa, kalefakzioa eta
petrolio produktuak
Komunetako altzariak
eta osagarriak

Gipuzkoa etorb. 48 - behea
Tel/Fax. 943 17 01 09
E-maila: bdedios@euskalnet.net



ELEKTRIZITATEA

BETA

ARGIZTAPENA
ELEKTRIZITATEA

- Proiektuak
- Instalazioak
- Erreformak
- Kalefakzioa
- Gauko tarifa
- erradiadore elektrikoak

Diputazio, 13 943 17 65 25
689 23 31 71

ITURGINTZA
ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA

LUIS VALLE

Bainugelen
erakusketa
943 17 15 56

Tailerra
943 17 23 56

Goienkale z/g

ITURGINTZA

FONTANERIA

PALACIOS

ITURGINTZA INSTALAZIOAK, GAS ETA KALEFAKZIOA
baimendutako instalatzailea

San Pelaio, 22 - behea 943 030 267
660 729 503

ERROTULAZIOA

ROTEK
rótulos

- Argi errotuloak
- Autoendako errotuloak
- Barne errotulazioa
- Irudi korporatiboa
- Neoia
- Inpresio digitala formato handian

Goitondo behetxea industrialdea
C-1 partzela, 5 behea (Mallabia)
eta Faxa: 943 17 00 36 • rotek@telefonica.net

PERTSIANAK

PERSIANAS ORBE

- muntaia eta konponketa
- motorizazioa
- pertsiana dekoratiboak
- pertsiana bilgarriak
- segurtasun pertsianak
- moskiterak

Zearreko buelta, 2
943 17 66 34
630 01 13 41

ELEKTRIZITATEA

ZUBIAURRE
ELEKTRIZITATEA

INSTALAZIO ETA MUNTAI ELEKTRIKOAK
MANTENIMENDU INDUSTRIALA

☎ 943 17 00 61 Faxa. 943 17 42 17
Zubiaurre, 18 - 48260 ERMUA

TELEKOMUNIKAZIOA

Cable Spot

Zure antena TDTrA egokitu.
ETEN ANALOGIKOA
GERTU DAGO!

- Antena kolektiboak
- Atezain automatikoak
- Telefonía mugikorra.
- Zuntz-optikoa.
- Banda zabala.
- Kable telebista...

euskaltel

ERMUA. San Pelayo 4 behea.
943 172314

**Gremioen
Gidan
publizitatea
jartzea nahi baduzu...**

**deitu 943 17 93 50
688 63 82 76**

Lo ta Lo

koltxoi-denda

Eskaintza *****

Koltxoi malgukidun
eta biskoelastikoa

460,80€

eta
kanape bat
oparituko
dizugu



Eskaintza ***

Ohe artikulatua,
motorizatua,
5 posizio

750€



eta koltxoi
biskoelastikoa
oparituko
dizugu

Eskaintza **

Habia-ohea,
kajoiekin

408,10€



%30eko
deskontua
lehen mailako
etxeke
arropetan

Bassetti,
Tolra...



Osasun-ohe artikulatuen alokairua



Erosketa egiterakoan,
opari berezia jasoko duzu...

GIPUZKOA ETORB. 12, BEHEA

Abuztuaren 17an zabalduko dugu